

Kutxabankek bere posizionamendua indartuko du, Benetan diharduen banku gisa

- **Marka-posizionamendu berria, bere balio-proposamena azpimarratzen duena: errotuta dagoen bankua, hazkunde jasangarrira, dibertsifikaziora eta hurbileko tratu eta balio erantsiko zerbitzuen alde egitera bideratua. Digitalizazioa eta arreta pertsonalizatua uztartzen dituen proiektua, are sozialagoa eta erakargarriagoa talentuarentzat**
- **Eguneratu egingo du bere logotipoa, eta berezi egiten duten ezaugarriak mantenduko ditu: K eta kolore beltza**
- **Bankuaren etapa berrian sustatutako estrategia korporatiboari eta negozio-estrategiari erantzuten dion ekimena bere 5.000 langile baino gehiagorekin partekatu da**

2024ko urriaren 8an. Kutxabankek finantza-merkatuan duen posizionamendua indartuko du, Benetan diharduen edo ari den banku gisa. Marka-posizionamendu berri horrek bankuaren eta bere profesionalen konpromisoa eta balio-proposamena adierazten ditu bere interes-taldeekiko, eta bere estrategiaren eta kudeaketaren oinarriak ezartzen ditu: errotuta dagoen bankua, hazkunde jasangarria eta hedapena (bezeroak, lurraldeak eta zerbitzuak) bilatzen dituena, eta pertsonalizazioaren, hurbileko tratuaren eta balio erantsiko zerbitzuen alde egiten duena. Talentu berria erakarriko duen proiektua, eta enpresetan modu lehiakorragoan kokatuko dena. Banku digitalagoa, teknologikoagoa eta sozialagoa, lan egiten duen komunitateekin eta jasangarritasunarekin konprometitua.

“Gauzak serio edo benetan hartzeak gure bezero bakoitzarekiko konpromiso sakona eta erantzukizuna adierazten ditu”, azaldu du Anton Arriola Kutxabankeko presidentea. “Serioak gara, gure lanbidea benetan hartzen dugulako eta gure bezeroen bizi- edo lanbide-proiektuaren atzean dagoen diruaren balioa ulertzen dugulako”.

“Hain zuzen ere, banku bat izatea balioan jartzearen alde egiten dugu eta bereiztearen alde egiten dugu, gure esperientzia eta finantza-irizpide, ikuspegi pertsonalizatu, hurbileko tratu eta balio erantsiko zerbitzuetan oinarrituta”, adierazi du Eduardo Ruiz de Gordejuela Kutxabankeko CEOak.

Logo eguneratua bilakaera transmititzeko

Posizionamenduaren azterketarekin batera, bankuaren logoa zertxobait eguneratu egin da, finantza-erakundearen bilakaerari ere lagun egin diezaion, eta marken arkitektura bateratua egin da Kutxabanken inguruan, bere nortasun-ezaugarriak mantenduko

dituelarik: K, puntu gorria eta kolore beltza (seriotasuna eta esperientzia), eta horrekin batera zuria (konfiantza eta gardentasuna), gorria (mobilizatzaila) eta grisa (profesionala eta moldakorra). Cajasurrek bere izena eta logotipoa mantenduko ditu.

Bere 5.000 langile baino gehiagorekin partekatu duen ekimenak bankuaren etapa berri baten estrategia korporatibo eta negozio-estrategiari erantzuten dio. Etapa horretan, besteak beste, honako mugarri hauek izan dira: zuzendaritza-egitura eta antolamendueredu berria; irtenbide digitaletan inbertitzeko programa (Acelera Plana); Kutxabank Eragin eta jasangarritasun-ekimenak abian jartzea; ondare-kudeaketa indartzea, Wealth Managementekin –banka pribatua, banka pertsonala eta Premium Banka berria biltzen dituena–; eta Kutxabank Investment (lehen Norbolsa) indartsuago eta baliabide gehiagorekin.

Orain, bankua 2025-2027 denboraldirako Benetan Plan Estrategikoa lantzen ari da..

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.